

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

3331

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 10ekoa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, energia aurrezteko eta energia efizientziako inbertsioak sustatzeko 2014. urteko laguntzen deialdia argitaratzen duena.

Energiaren Euskal Erakundea zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren mendekoa, eta energia aurreztea eta energia-efizientzia, energia-baliabide berriztagarriak, energia-dibertsifikazioa eta energia-azpiegi-turen sustapena bultzatzeko jardunak bete behar ditu Euskal Autonomia Erkidegoan.

Ildo horretan, Energiaren Euskal Erakundea hainbat ekintza garatzen ari da 2020ko Euskadiko Energia Estrategian (3E-2020) bildutako helburuak betetzeko. Jardun horien artean aipatzekoa da zenbait laguntza-programa abian jartzen dituela, energia-efizientzia sustatzeko eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko jarduera-sektore guztietan.

Hortaz, laguntza-programa hau sortu da honako helburu nagusi honekin: EAEko lurraldean kokatutako instalazio eta eraikinetan, energia aurrezteko eta energia-efizientziako proiektu eta ekintzetarako inbertsioak sustatu eta bultzatzea.

Adierazitako guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EEEko zuzendaritza-organoen eginkizunak arautzen dituen martxoaren 5eko 64/1985 Dekretuaren 1. eta 5. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz eta EEEko presidentek eskuordetu dizkidan eskumenak betez, energia aurrezteko eta energia-efizientziako inbertsioetarako 2014ko laguntza-programari dagozkion oinarri erregulatzailleak onartzea. Programaren edukia Ebazpen honekin batera doa, I. eranskin gisa.

Bigarrena.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Lege Dekretuaren 49.2 artikuluekin bat etorriz, energia aurrezteko eta energia-efizientziako inbertsioetarako 2014. urteko laguntza-programari dagozkion oinarri erregulatzailleak onartzen dituen ebazpen hau, oso-osorik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Bilbao, 2014ko uztailaren 10a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
PILAR URRUTICOECHEA URIARTE.

ERANSKINA

ENERGIAREN AURREZPEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ALDEKO INBERTSIOAK SUSTATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA**1. PROGRAMAREN XEDEA ETA DIRU LAGUNTZEN EZAUGARRIAK**

- 1.1 Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, Eusko Jaurlaritzaren energia politikaren helburuekin bat etorritik, behar den bultzada publikoaren bidez, honako misio hau gauzatzen laguntzen du: energiaren kontsumoan eraginkortasuna areagotzen, energia sistema lehiakorrago, seguruago eta iraunkorrago lortzen, ingurumen eragina edo inpaktua gutxitzen, kontsumitzeko energia gutxiago erabiltzen eta kanpoko baliabideen mendekotasuna murrizten.

Horiek horrela, zenbait ekimen eramaten ari dira aurrera azken urte hauetan energiaren aurrezpen eta eraginkortasuna hobetzeari begira; besteak beste, laguntzen programa honek alor horietan inbertsioak sustatzeko ematen dituen diru laguntzak.

Beraz, laguntzen programa honen helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean EAE) instalazio eta eraikinetan energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna areagotzea dakarten inbertsioak bultzatzea. Era horretan, energia aurreztu eta hobeto erabiliko da horrelako eraikin eta instalazioetan.

- 1.2 Programa honen barruan ematen diren diru laguntzak itzuli beharrik gabeko diru laguntzak dira.
- 1.3 Laguntza programa hau eta bere aplikazioaren ondorioz ematen diren diru laguntzak bateragarriak diren barne-merkatuarekin, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. artikulua 3. atalean xedatzen denari jarraiki, Itun horren 108. artikuluan adierazten den batzordeari jakinarazi beharretik salbuetsita egonik.

Laguntza programa honetan aurreikusten diren diru laguntzak Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko UE 651/2014 Araudiaren barruan daude, zenbait diru laguntza mota barne-merkatuarekin bateragarriak jotzen dituen, Itunaren (DOUE 2008 L 214/3) 107. eta 108. artikuluen aplikazioaren ondorioz (aurrerantzean **Kategorien Araberako Salbuespen Araudi Orokorra** edo **651/2014 Araudia**), jarraian aipatzen diren artikuluen arabera:

38. artikulua: «Energia eraginkortasuna sustatzeko neurrien aldeko inbertsoei diru laguntzak».

40. artikulua: «Eraginkortasun handiko baterako sorkuntza sustatzeko inbertsoei diru laguntzak».

46. artikulua: «Energia aldetik eraginkorrek diren hiri berokuntza eta hozte sistemak bultzatzeko inbertsoei diru laguntzak».

49. artikulua: «Ingurumen alorreko azterlanak egiteko diru laguntzak».

Era berean, diru laguntza jasoko duten 651/2014 Araudiaren barruko proiektuek erakutsi beharko dute laguntza programa honek ondorio sustatzaile edo pizgarria duela (651/2014 Araudiaren 6. artikulua). Ondorio horietako, kontuan hartuko beharko dira baldintza hauek:

- Enpresa txiki eta ertainen kasuan, diru laguntzak ondorio sustatzaile duela kontsideratuko da baldin eta proiektua edo jarduera hasi aurretik, onuradunak diru laguntza eskatu badu idatziz, eta eskaerak horrek, gutxienez, 651/2014 Araudiaren 6.2 artikuluan xedatutako informazioa badu.
- Enpresa handien kasuan, lehengo paragrafoan adierazitako betekizunaz gain, diru laguntzak ondorio sustatzaile duela kontsideratuko da baldin eta honako egoeraren bat gertatzen bada: (i) proiektuaren edo jardueraren irismena nabarmen areagotzen bada, diru laguntzari esker, edo (ii) onuradunak proiektuan edo jardueran egindako guztizko inbertsioaren zenbatekoa nabarmen areagotzen bada, diru laguntzari esker, edo (iii) proiektua edo jarduera gauzatzeko erritmoan aurreratze nabarmena gertatzen bada.

2. ONURADUNAK

- 2.1 Programa honek arautzen dituen diru laguntzen onuradunak hauexek izan daitezke: izaera publiko zein pribatuko edozein pertsona fisiko edo juridiko, nortasun juridiko propioaren jabe izanik. Laguntza programa honek ematen dituen diru laguntzez baliatzeko jarduerak 4. atalean zehaztean dira, eta jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) barruan gauzatu behar dira
- 2.2 Programa honek ematen dituen diru laguntzez ezin izango dira baliatu honako hauek:
- a) Azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegileko 50.5 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren Antolamendu Printzipioen Legearen Testu Bategina (aurrerantzean 1/1997 L.D.) onartzen duena, adierazten diren egoeraren batean dauden erakundeak. baita zigortuta daudenak, administratibo edo penalki, diru laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galarazita dutenak, edo debekuren bat indarrean dutenak eta horretarako gaitasunik gabe uzten dietenak ere.
 - b) Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutuna, abenduaren 28ko 14/2007 Legea betez, enpresaren helburu sozialen edo jarduketan artean, osorik edo aldez, armen ekoizpen merkaturatze eta finantzaketa bada.
 - c) 651/2014 Araudiaren 1. artikulua 4a) eta 4c) ataletan xedatzen denari jarraiki:
 - Berreskuratzeko agindu baten zain dauden enpresak, aldez aurretik Batzordeak emandako erabakiaren ondoren, diru laguntza barne-merkatuarekin legez kanpokoa edo bateraezina adierazten duena.
 - Krisian dauden enpresak, krisia jasaten duten enpresak bideratzeko eta birmoldatzeko Estatuko diru laguntzei buruzko EBren jarraibideen arabera.
 - d) 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasunaren aldekoa, 250 langile baino gehiago dituzten enpresek Berdintasun Planik ez badute.
- 2.3 Laguntza programa honen arabera, 651/2014 Araudiari jarraiki, enpresatzat haxe hartuko da:

«Jarduera ekonomiko bat egiten duen entitate oro enpresatzat joko da (merkatu jakin batean ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dituen edozein jarduera izan daiteke), era juridikoa gorabehera. Zehazki, artisautza jarduera edo bestelako jarduerak izaera indibidualarekin edo familiarrarekin egiten dituzten entitateak, pertsonen sozietateak eta jarduera ekonomiko bat modu erregularrean egiten duten elkarteak enpresatzat joko dira».

Enpresa txiki eta ertainen kategoriaren (ETE/PYME) barruan izateko, enpresek honako baldintza hauek bete behar dituzte: 250 langile baino gutxiago izatea eta urteko negozio bolumena 50 milioi eurotik gora ez izatea, edo urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gora ez izatea.

ETE/PYME kategorien arabera honako ezaugarriak dituen enpresa hartzen da enpresa txikitzat: 50 langile baino gutxiago izatea eta urteko negozio bolumena edo urteko balantze orokorra 10 milioi eurotik gora ez izatea.

3. PROGRAMAREN AURREKONTUA ETA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Programa honi esleitutako diru-saila edo aurrekontua **bost milioi eta berrehun mila (5.200.000) eurokoa** da. betiere, horretarako Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean EEE) aurrekontuetan ezarritako kredituaren arabera. Laguntza multzo guztien zenbatekoa ez da 5.200.000 euro baino gehiago izango, edo haren gaurkotzearen ondoriozko zenbatekoa izango dena, indarrean dagoen legearekin bat etorritik, baldin eta EEEk egingo duen diru ekarpenari dagokion aurrekontu aldaketa izaten bada.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (aurrerantzean EHAA) iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea programa honen kontura, eta programari esleitutako diru-saila agortzen denean amaituko da.

Nolanahi ere, aipatutako aurrekontua agortu zein ez agortu, 2014ko urriaren 31n izango da azken eguna diru laguntza eskabideak aurkezteko.

Aurrekontuaren agortzearen berri emango da Interneteko helbide honetan: <http://www.eve.es>

Diru laguntza eskabide osoak aurkeztuta eta bideratzen egongo diren arren, bazter egingo dira, baldin eta esleitutako aurrekontua amaitzen bada, EEEko zuzendari nagusiak emango duen ebazpenaren bidez.

4. DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK ETA DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Programa honen kontura diruz lagunduko diren energia eraginkortasunaren alorreko jarduerak Oinarri hauetako 4. atalean zehazten dira. Jarduera horiek EAEn egingo dira eta honako data hauen artean gauzatu eta fakturatu beharko dira: 2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra.

651/2014 Araudiaren pean dauden enpresen kasuan, Oinarri hauetako 4. atalean zehazten diren jarduerak honako data hauen artean gauzatu eta fakturatu beharko dira: Oinarri hauek EHAA-n argitaratu ondorengo egunetik 2014ko abenduaren 31ra.

Energiaren aurrezpen eta eraginkortasun alorreko neurriak ezin izango dira baliatu laguntzen programa honetaz, inongo ataletan, baldin eta energiaren kontsumoan murrizketaren bat ez badakarte neurri horiek.

Laguntzen programa honen kontura diruz lagunduko diren energiaren aurrezpen eta eraginkortasun alorreko jarduerak hauexek dira:

- a) Energia **ekipoen** eta instalazioen **berritzea**, **enpresetan** eta **industrietan**, adibidez, konpresoreak, galdarak, erregailuak, motorrak, labeak, ponpak, fluidoak (beroa eta hotza) banatzeko sistemetan isolamenduak, pabiloi eta eraikinetako barne-argiztapen sistemak, energia aldagaiak kontrolatzeko eta kudeatzeko sistemak, hondar-beroa aprobetxatzeko instalazioak, etab. Horien ordez eraginkortasun handiko teknologiak erabiltzen dituzten gailuak eta sistemak jarri behar dira, eta energia kontsumoan murrizketa nabarmena ekarri beharra dute, eta, beraz, hobekuntza esanguratsua ere ingurumen aldetik.

Atal honetan aipatutako jarduerak kostu lagungarriaren % 20ko diru laguntza izango dute.

- b) **Egungo eraikinen ingurutzailerako termikoaren energia-gaiberritzea**, ohiko erabilera duten eta klimatizatuta dauden eraikinak; energia kontsumoan murrizketa nabarmena ekarri beharra dute, eta, beraz, hobekuntza esanguratsua ere ingurumen aldetik. Energia-gaiberritzea fatxada, estalki, ataripe eta abarretan egin daiteke. Hala ere, ez dute ekarri behar gune klimatizatuen handitzea, ezta haien erabileran edo jardueran aldaketarik ere.

Gaiberrituko den ingurutzailerako termikoak bete beharreko gutxienezko eskakizunak CTERen HE-1 dokumentuan (energia eskariaren mugaketa) azaltzen dira.

Hirugarren alorreko eraikinetan jarduerak egiteko, 8/2013 Legearen arabera, 2013-06-26ko BOE 153 zenbakia, «hiri gaiberritzeaz, berregituraz eta berritzeaz diharduena», hobekuntza gauzatu ondoren, Eraikina Ebaluatzeko Txostena aurkeztu beharko da, 2013-10-15eko Aginduaren arabera, 2013-11-18ko EHAA 219 zenbakia, 2012ko azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuaren II. eta III. eranskinak aldatzen dituen, «Eraikinen Ikuskapen Teknikoa Euskal Autonomia Erkidegoan» arautzen duena; bertan, eraikinaren irisgarritasunaren ebaluazioa, kontserbazio egoeraren ebaluazioa eta energia eraginkortasunaren ziurtapena xedatzen dira.

Eraikinari eusteko egiturari lotutako lanak edo obrak, aldez edo osorik, eta obra egiten den bitartean haren erabilera normala egitea eragozten dutenak, ez dira diruz lagunduko.

Energia-gaiberritzearen barruan leihoak berritzen badira, leiho horiek C marka edukitzeaz gain, zubi termikoaren haustura izan behar dute arotzia metalikoan. Beira bikoitzaren sistemak isolamendu termiko sendoa (ATR), eta transmitantzia termikoaren balioa (isolatzeko ahalmena edo Ug balioa) 1,40 W/m²·K edo txikiagoa izango da. Kameraren lodiera 14 mm-koa edo handiagoa izango da. Bizitegiak diren eraikinen kasuan, diru laguntza hauetaz baliatu ahal izateko, etxebizitzetako leiho guztiak berritu beharko dituzte.

Atal honetan aipatutako jarduerak kostu lagungarriaren % 20ko diru laguntza izango dute.

- c) **Egungo argiztapen instalazioen berritzea**, eta haien ordean eraginkortasun handiko teknologiak erabiltzen dituztenak jartzeko; energia kontsumoan murrizketa nabarmena ekarri beharra dute, eta, beraz, hobekuntza esanguratsua ere ingurumen aldetik. Berritzeak honako hauei eragin diezaieke: etxejabeen elkartearen gune komunak, fatxaden proiektoreak, tunelen argiztapena, aparkalekuak, errepideko argiztapena urbanizazioetan, saltokiak, tabernak, jatetxeak, etab.

Atal honetan aipatutako jarduerak kostu lagungarriaren % 20ko diru laguntza izango dute.

- d) Energia eraginkortasun handiko **baterako sorkuntza instalazio berriak**, energia elektrikoa eta termikoa modu konbinatuan ekoizteko xedez.

Atala honen barruan, diruz lagunduko diren instalazioen jarduerak honako lege honetan jasota egon behar dira: 2012ko urriaren 25eko Kontseiluaren eta Europar Parlamentuaren 2012/27/CE Zuzentaraua, energia eraginkortasunaz diharduena, 2009/125/CE eta 2010/30/CE zuzentarauak aldatzen dituenak, eta 2004/8/CE eta 2006/32/CE zuzentarauak baliogabetzen dituenak.

Atal honetan aipatutako jarduerak kostu lagungarriaren % 20ko diru laguntza izango dute.

- e) **Egungo eraikinetan energia instalazioen berritzea**, eta haien ordean eraginkortasun handiko teknologiak erabiltzen dituztenak jartzeko; energia kontsumoan murrizketa nabarmena ekarri beharra dute, eta, beraz, hobekuntza esanguratsua ere ingurumen aldetik. Berritzeak honako hauei eragin diezaieke: galdara-gelak, erregailuak, ponpak, fluidoak (beroa eta hotza) banatzeko sistemetan isolamenduak, energia aldagaiak kontrolatzeko eta kudeatzeko sistemak, etab. Horiek guztiak zerbitzua eman behar diote eraikin osoari, bizitegi sektorearen kasuan.

Instalazio termiko zentralizatuak dagokienez, erregaiaren eta energia elektrikoaren kontsumoaren neurketa eta erregistroa ahalbidetzen duten gailuak eduki behar dituzte, beste erabilera batzuen kontsumotik bereizita. Era berean, sortutako energia termikoa neurtzeko gailuak eduki behar dira.

Hirugarren alorreko eraikinetan jarduerak egiteko, 8/2013 Legearen arabera, 2013-06-26ko BOE 153 zenbakia, «hiri gaiberritzeaz, berregituraz eta berritzeaz diharduena», hobekuntza gauzatu ondoren, Eraikina Ebaluatzeko Txostena aurkeztu behar da, 2013-10-15eko Aginduaren arabera, 2013-11-18ko EHAA 219 zenbakia, 2012ko azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuaren II. eta III. eranskinak aldatzen dituenak, «Eraikinen Ikuskapen Teknikoa Euskal Autonomia Erkidegoan» arautzen duena; bertan, eraikinaren irisgarritasunaren ebaluazioa, kontserbazio egoeraren ebaluazioa eta energia eraginkortasunaren ziurtapena xedatzen dira.

Atal honetan aipatutako jarduerak kostu lagungarriaren % 20ko diru laguntza izango dute.

- f) **Energia auditoria integralak** energia eraginkortasunaz, bai industria alorreko manufaktura enpresetan (C taldea, CNAEren arabera), bai hirugarren alorreko eraikinetan; Oinarri hauetako diru laguntzaz baliatzeko, azken horientzat gutxienezko energia kontsumoaren muga hau jartzen bada ere: energia primarioaren 100 tep/urteko.

Eskaera berean zenbait eraikinetan energia auditoria integralak egiteko eskaerak kontuan hartuko dira, legez ordezkaturiko dituen erakunde edo elkarte batek egiten duenean, baldin eta multzoko eraikin bakoitzak erakusten badu honako energia kontsumotik gora egiten duela: 20 tep/urteko energia primarioa; eta eraikin multzo osoari dagokionez, energia primarioaren 100 tep/urteko gutxienez.

Auditoria garatzeko jarraitu beharreko metodologia UNE-EN 216501 arauaren arabera egingo da, edo geroago arauaren inguruan egindako egokitzapenen edo hobekuntzen arabera.

Kokaguneko jardura osoan, ISO 50001 arauan oinarrituta, **Energia Kudeatzeko Sistemak (SGEn)** ezartzea helburu duten **energia auditoriak**, industria alorreko manufaktura enpresetan (C taldea, CNAEren arabera); kanpoko elkarte akreditatu batek eginez gero, ISO 50001 araua ziurtatzeko kostuak ere diruz lagunduko dira, baita SGEn (b) atala) ezartzeko behar den ekipamenduaren kostua ere.

ISO 50001 arauan oinarrituta, **Energia Kudeatzeko Sistemak (SGEn)** ezartzea helburu duten **energia auditoriak**, bizitegiak ez diren hirugarren alorreko eraikinetan, eta energia primarioaren 100 tep/urteko energia kontsumoa baino handiagoa izan behar dutenak; kanpoko elkarte akreditatu batek eginez gero, ISO 50001 araua ziurtatzeko kostuak ere diruz lagunduko dira, baita SGEn (b) atala) ezartzeko behar den ekipamenduaren kostua ere.

Atal honetan aipatutako jarduerak kostu lagungarriaren % 50eko diru laguntza izango dute.

5. KOSTU LAGUNGARRIA

5.1 DIRUZ LAGUNDUKO DIREN ASPEKTUAK

1. Eskatzailea enpresatzat hartzeko ez den kasuan

Kostu lagungarritzat hauxe hartuko da: egin behar den inbertsioa, aurreikusitako energia helburuak lortzeko ezinbestekoa dena.

2. Eskatzailea enpresatzat hartzeko den kasuan

• **4. Oinarriko a), b) eta c) ataletan** aurreikusten diren diru laguntzei dagokienez, energia eraginkortasun maila handiagoa lortzeko behar diren inbertsio-kostu gehigarriak lagunduko dira diruz. Era honetan kalkulatu dira:

- Energia eraginkortasunean inbertsio-kostuak inbertsio bereizi gisa identifikatu ahal direnean guztizko inbertsio-kostuetan, energia eraginkortasunari lotutako kostu horiek diruz lagunduko dira.
- Gainerako kasu guztietan, energia eraginkortasunean inbertsio-kostuak antzeko inbertsio baten erreferentzia hartuta identifikatu ahal direnean, energia eraginkortasun txikiagoa dakarrena, modu sinesgarrian diru laguntzarik gabe egin zitekeena, bi inbertsio horien arteko kostuen aldeak zehaztuko du energia eraginkortasunari lotutako kostua, eta diruz lagunduko den kostua edo kostu lagungarria izango da.

Energia eraginkortasun maila areagotzeari zuzenki lotuta ez dauden kostuak ez dira diruz lagunduko.

• **4. Oinarriko d) ataletan** aurreikusten diren diru laguntzei dagokienez, baterako sorkuntza instalazioak eraginkortasun handiko instalazio moduan funtzionatzeko behar diren ekipoetan egingo diren inbertsio-kostu gehigarriak lagunduko dira diruz, ahalmen bera duten elektrizitate edo berokuntza instalazio konbentzionalekin konparatuta, edo eraginkortasuna hobetzeko inbertsio-kostu gehigarriak, egungo instalazioak eraginkortasun handiko atalasea betetzen duenean.

• **4. Oinarriko e) ataletan** aurreikusten diren diru laguntzei dagokienez, hauxe hartuko da kontuan:

(i) Energia eraginkortasun maila handiagoa lortzeko behar diren inbertsio-kostu gehigarriak lagunduko dira diruz. Era honetan kalkulatu dira:

- Energia eraginkortasunean inbertsio-kostuak inbertsio bereizi gisa identifikatu ahal direnean guztizko inbertsio-kostuetan, energia eraginkortasunari lotutako kostu horiek diruz lagunduko dira.
- Gainerako kasu guztietan, energia eraginkortasunean inbertsio-kostuak antzeko inbertsio baten erreferentzia hartuta identifikatu ahal direnean, energia eraginkortasun txikiagoa dakarrena, modu sinesgarrian diru laguntzarik gabe egin zitekeena, bi inbertsio horien arteko kostuen aldeak zehaztuko du energia eraginkortasunari lotutako kostua, eta diruz lagunduko den kostua edo kostu lagungarria izango da.

Energia eraginkortasun maila areagotzeari zuzenki lotuta ez dauden kostuak ez dira diruz lagunduko.

(ii) Nolanahi ere, energia aldetik eraginkorrak diren berokuntza eta hozte hiri-sistemak (District Heating) egitea aurreikusten diren jardueren kasuan, kostu lagungarria era honetan kalkulatu da:

- Ekoizpen instalazioaren kasuan, sorkuntza unitate baten edo batzuen eraiki, handitu edo berritzeko behar diren kostu gehigarriak lagunduko dira diruz, energia aldetik eraginkortasunez funtzionatzen duten berokuntza eta hozte hiri-sistema moduan erabiltzen direnak, ekoizpen instalazio konbentzional batekin konparatuta. Energia aldetik eraginkortasunez funtzionatzen duten berokuntza eta hozte hiri-sistemaren barruan egongo dira inbertsioak.
 - Banaketa sareari dagokionez, inbertsio-kostuak izango dira kostu lagungarriak.
- **4. Oinarriko f) ataletan** aurreikusten diren diru laguntzei dagokienez, azterlanen eta energia auditorien kostuak lagunduko dira diruz.

Nolanahi ere, energia auditorian garatuko den lanaren irismena hartuko da kontuan (eskatailearen kontsumitzaile-profila, kontsumitutako energiak, egin beharreko monitorizazioak, garatzeko energia balantzeak eta konplexutasuna, baterako sorkuntzaren bideragarritasunaren azterketa ala ez, etab.).

3. Kontuan hartu beharreko beste aspektu batzuk

Interesdunaren izaera edo ezaugarriak gorabehera, jarraian aipatzen diren aspektu hauek kontuan hartu beharko dira:

- Energia eraginkortasun atalean, gaininbertsioa «energia eraginkortasun handia» duen energia instalazio edo sistema jartzeko proiektuari dagokio, energia instalazio edo sistema konbentzionalaren ezaugarriak izan lituzkeen proiektuekin konparatuta.

Ildo horretatik, gehieneko kostu lagungarria izango da lehen hamar (10) urtean lortuko den aurrezkiari esker amortizatuko dena, eraikinen inguratzaile termikoaren inguruko jardueren kasuan izan ezik, lehen hogeita (20) urtean lortuko den aurrezkiak kontuan hartuko baita.

- Diru laguntzaren onuraduna enpresa bat baldin bada, ekoizpen ahalmena edo ahalmen ekonomikoa areagotzearen ondorioz lor litezkeen abantailak kontuan hartu gabe kalkulatu dira energia-aurrezkiak.
- Era berean, jarraian aipatzen diren diru laguntza gehieneko ratioak (euro) ez dira gaituko, urtean aurretzen den tona petrolio baliokideko, energia primarioaren unitateetan adierazita (tepEP): 500 €/tepEP industria alorreko jardueren kasuan, eta 1.500 €/tepEP gainerako jarduera arlokoen kasuan. Salbuespena eraikinen inguratzaile termikoaren gaineko jarduerak dira; izan ere, diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa 2.500 €/tepEP izango da.

5.2 KOSTU LAGUNGARRIAREN BARRUAN SARTUKO EZ DIREN JARDUERAK

- Fakturatutako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeko ordaindu den BEZa, eta, oro har, zergak.
- Inbertsioaren ondorioz eragindako finantza-gastuak, pertsonal propioari dagozkionak eta lurrak erosteko gastuak.
- Ekipo erabiliak eskuratzeko inbertsioak.
- Honako hauek erosteko inbertsioak: makineria autopropulsatua, ibilgailuak, bizikletak eta, oro har, salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko garraiobideak.
- Egungo eraikinetan instalazio eta ekipoen berritzea, lokal edo eraikinaren erabilera edo jardunaren aldaketaren ondorioz bada ekintza edo jarduera.
- Instalazio eta ekipoen berritzea edo hobekuntza, enpresak kokalekua aldatu badu.

- instalazioak eta ekipoak mantentzeko, egokitzeko eta konpontzeko inbertsioak.
- Kondentsadore-bateriak edo energia erreaktiboaren gailu berdintzaileak.
- Buruko gailu edo sistema trinko «aurreztailea» Instalazio elektrikoetan, lor ditzakeen aurrezki elektrikoak egiaztatzeko eragile baten ziurtapenik ez badu ekipoak, edo eragindako instalazioan aurrezki elektrikoak eragile akreditatu batek ematen duen ziurtapen baten bitartez bermatzen ez badu.
- Zerbitzariak, inprimagailuak eta, oro har, gailu ofimatiko guztiak.
- Merkatu azterketak, bideragarritasun azterketa edo azterlanak, zatikako energia auditoriak prozesuetan edo instalazioetan, etab.
- Garraio-flotak kudeatzeko auditoriak edo gailuak.
- Jabeen elkarteen eraikinetan dauden etxebizitza partikularretan leihoen berritzea.
- Eraikinetako eskailera-kutxako leihoen berritzea eta, oro har, berotuta ez dauden tokietan leihoen berritzea.
- Jarraipen, koordinazio eta horrelako txostenak, baita obra amaierako ziurtapena eta antzekoak ere.
- Begiratokiak blokean deitutakoak, eraikinaren ingurutzailerako termiko efektiboaren barruan ez daudenean, etxebizitza eta kanpoko aldea bereiziz (etxebizitzaren gainerako guneetatik bereizten dituzten ateak dauzkatenak ez dira diruz lagunduko).
- Eraikinen berreraikitzea, eraikinari eusteko egiturari lotutako lanak, aldeztu edo osorik, izango da berreraikitzearen barruan sartuko dena.
- Egungo igogailuen sistema eragilea edo higitzailea modernizatzeko inbertsioak.
- Aurreko edo behin-behineko txostenak, jarraipena, koordinatzeko eta antzeko informeak egiteko ordainsari profesionalak.
- Eta, orokorrean, behar bezala zehaztu eta definitu gabeko gastu guztiak, edo inbertsioaren energia helburuak lortzea xede zuzena ez duten gastuak.

6. DIRU LAGUNTZEI EGINGO ZAIZKIEN MUGAKETA OROKORRAK

- 6.1 Laguntzen programa honen kontura gauzatuko diren jardueretan, onuradun bakar batek jaso dezakeen gehieneko diru laguntza **laurehun eta berrogeita hamar mila (450.000)** eurokoa izango da; gainera, proiektuko izango duen muga **ehun mila (100.000)** eurokoa izango da, eta ez du inola ere gaindituko proiektu mota bakoitzerako ezarritako ehuneko, Oinarri hauetako 4. atalean azaltzen direnak.

Hala ere, inbertsio mota bideragarritasun azterlantzat jotzen bada, kasu honetan **energia auditoria integrala**, laguntzen programa honen kontura onuradun bakar batek jaso dezakeen gehieneko eta guztizko diru laguntza **berrogeita hamar mila (50.000)** eurokoa izango da, eta ezin izango du kostu lagungarriaren % 50 gainditu.

- 6.2 Jardueraren kostu lagungarria 3.000 euro (BEZik gabe) baino txikiagoa bada, laguntzen programa honetaz ezin izango da baliatu.
- 6.3 Enpresa handiei ez zaie diru laguntzarik emango, baldin eta energia auditoriak 2012/27/UE Zuzentarauaren 8. artikulua 4. atalean xedatutakoaren arabera egiten badira, zuzentzarau horrek eskatzen duen betebeharreko energia auditoriari erantsi ezik.

6.4 Beste diru laguntza batzuekiko bateragarritasuna energiaren aurrezpen eta eraginkortasun jardueretarako

- Oinarri hauen arabera ematen diren diru laguntzak bateraezinak dira EEEK kudeatzen dituen beste laguntza programa batzuen kontura ematen dituenekin.
- Dokumentu honetan jasotzen den xede bera izanik, beste erakunde edo elkarte publiko zein pribatu batzuek emandako diru laguntzak bateragarriak izango dira programa honetan ematen direnekin, baldin eta diru laguntza guztiak batera kostu lagungarriaren ehuneko jarraian aipatzen direnak edo txikiagoak badira:
 - **4. Oinarriko a), b) eta c) ataletan** zehazten diren jardueretarako kostu lagungarriaren % 30. Salbuespena enpresa txikiak eta ertainak izango dira, horien kasuan % 50 eta % 40 izango baita, hurrenez hurren (651/2014 Araudiaren 38. artikulua).
 - **4. Oinarriko d) atalean** zehazten diren inbertsio proiektuetarako kostu lagungarriaren % 45. Salbuespena enpresa txikiak eta ertainak izango dira, horien kasuan % 65 eta % 55 izango baita, hurrenez hurren (651/2014 Araudiaren 40. artikulua).
 - **4. Oinarriko e) atalean** zehazten diren inbertsio proiektuetarako kostu lagungarriaren % 30. Salbuespena enpresa txikiak eta ertainak izango dira, horien kasuan % 50 eta % 40 izango baita, hurrenez hurren (651/2014 Araudiaren 40. artikulua).. Salbuespena hauxe da: energia aldetik eraginkorrak diren berokuntza eta hozteko hiri-sistemak (District Heating), kasu honetan kostu lagungarria % 45 izango da; enpresa txikiak eta ertainak izan ezik, horien kasuan % 65 eta % 55 izango baita, hurrenez hurren (651/2014 Araudiaren 46. artikulua).
 - **4. Oinarriko f) atalean** zehazten diren inbertsio proiektuetarako kostu lagungarriaren % 50. Salbuespena enpresa txikiak eta ertainak izango dira, horien kasuan % 70 eta % 60 izango baita, hurrenez hurren (651/2014 Araudiaren 49. artikulua)..

Diru laguntzaren eskatzailea enpresa bat ez bada, 651/2014 Araudian xedatutakoa betez, enpresa txikiei ezarri zaizkien konkurrentzia muga berak izango ditu.

Beste administrazio batzuek edo erakunde pribatuek emandako diru laguntzak gauzatzen badira EEEK emandako diru laguntzaren ebazpenaren ondoren, diru laguntzaren zenbatekoaren gutxitzea ebazpen baten bidez zehaztuko da, diru laguntza ordaindu aurretik emango dena.

- 6.5 Egungo eraikinen inguratzaile termikoaren energia-gaiberritzeari lotutako jardueren kasuan, onuradunak hauexek baino ezin dira izan: izaera publiko edo pribatuko pertsona fisikoak edo juridikoak, gaiberritzea egingo den eraikin osoaren jabeak, errentariak edo energia kudeatzaileak.

7. DIRU LAGUNTZA ESKATZEKO HELBIDEA

Eskaerak Oinarri hauetako 3. atalean aipatutako epean aurkeztu beharko dira EEEren bulegoan, edo posta zertifikatuaz, honako helbide honetan:

EEE – Energiaren Euskal Erakundea
5020 Posta Kutxa
Bizkaia plaza eraikina
Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua
48011 Bilbo

Honako erreferentzia adieraziz: **PAAEE 2014**

NERGIAREN AURREZPEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ALDEKO INBERTSIOAK SUSTATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA. 2014. URTEA.

8. DIRU LAGUNTZAREN ESKABIDEAREN KUDEAKETA ETA PROZEDURA

Diru laguntza pertsona interesatuak eska dezake zuzenean, edo haren legezko ordezkariak; hala ere, azken hau ezin izango da diru laguntzaren onuraduna izan inoiz.

Eskatzaileak jarduera bera egingo badu zenbait tokitan, eskabidea bakarra izango da, eta memorian kokaleku bakoitzeko datu zehatzak azalduko dira.

Diru laguntzaren eskabidea eta berarekin batera bidali behar den dokumentazio tekniko-administratiboa 7. atal edo klausulan aipatutako lekura bidali beharko dira, 3. atalean adierazten den epearen barruan.

Zehazki, eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa hauxe da:

- a) **I-1 eranskina.** Diru laguntza jasotzeko eskabidea, behar bezala beteta.
 - b) **I-2 eranskina.** Datu teknikoak eta administratiboak, eta bertan ageri diren dokumentu administratibo hauek:
 - Sinatzailearen NANaren kopia.
 - Diru laguntza eskatzeko orrian edo inprimakian adierazitako kontu korrontearen (24 digitu) titularra onuraduna dela egiaztatzen duen banketxearen agiria. Laguntzen programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, kontu horretan sartu edo ordaindu da diru laguntza.
 - Memoria tekniko-ekonomikoa eta deskriptiboa, oraingo egoeraz eta proposatzen denaz. Auditorien kasuan, energia aldetik deskribapen tekniko orokorra emango da kokalekuaz (funtzionamendu-orduak urtean, langile kopurua, txandak, energia kontsumoak eta kostuak, urteko produkzioa eta abar); baita energia kontsumitzen duten instalazioaren inguruan ere, eta auditoriari emango zaion irismena azalduko da (egingo diren monitorizazioak, garatuko diren energia balantzeak eta berauen konplexutasuna, baterako sorkuntzaren bideragarritasun azterketa ala ez, etab.).
 - Aurreikusitako energiaren aurrezpenaren justifikazioa, energia auditoriak izan ezik.
 - Enpresa esleipendunaren eskaintza, sailka zehaztua. Eraikinen ingurutzaille termikoaren inguruko proiektuen kasuan, instalatzeko proposatzen den isolamendu termikoaren kostua adierazi beharko da, jardueran zerikusia duten beste kontzeptu batzuen kostuetatik argi berezita utzita.
 - **II. eranskina.** Aurkezten duen proiektu bera edo antzeko egiteko, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu bati eskatutako edota emandako beste diru laguntzei buruzko adierazpena, behar bezala beteta. Beste diru laguntza osagarririk jaso ez bada ere, dokumentu hau aurkeztu beharko da.
 - **III. eranskina.** Diru laguntza edo laguntza publikoak lortzeko zigortuta ez egotearen, administratibo edo penalki, edo eskuratzeko aukera galarazita zein debekuren bat indarrean eduki, eta horretarako gaitasunik gabe uzten ez dieten adierazpena.
 - **VII. eranskina.** Jarduera motaren arabera, dagokiona, industriaren eta hirugarren sektorearen gaineko datu teknikoekin, kasuan kasu.
- c) **IV. eranskina.** Enpresatzat hartzeko adierazpena, 651/2014 Araudiaren ondorioetarako, eta kasuan kasu, enpresa handia edo ertaina bada.
 - d) **V. eranskina.** Eskatzailea enpresa bat denean, erantzukizun-adierazpena: Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea beteta, enpresak ez duela helburu sozialik eta ez dela aritzen armagintzaren ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ere.
 - e) **VI. eranskina.** Enpresan 250 langile baino gehiago izanez gero, zinpeko adierazpena aurkeztu beharko da, enpresan emakume eta gizonen arteko berdintasun Plana dutela egiaztatzeko martxoaren 22ko 3/2007 Legearen arabera.

- f) 651/2014 Araudiaren menpeko enpresen kasuan, eta enpresa handiak badira, **eragin sustatzailearen** edo pizgarriaren justifikazioa, araudi horren 6. artikulua araberak.
- g) Foru Ogasunean ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen dokumentu eguneratua.
- h) Gizarte Segurantzaren ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen dokumentu eguneratua.

Modu osagarrian, jarraian aipatzen diren jarduerari begira, goraxeago aipatutako dokumentazioari, honako dokumentu zehatz hauek erantsi beharko zaizkio:

Eraikinen ingurutzaille termikoa hobetzeko proiektuak:

- o CTEn HE-1 dokumentua (energia eskariaren mugaketa) betetzen dela egiaztatzen duen justifikazioa.
- o Eraikinen planta motaren krokisa, isolamendu termikoaren inguruan proposatzen den jarduerak eragindako fatxadak eta aldeak adieraziz.

Familia bakarreko eraikinetan jarduerak:

- o Jabetza-eskriuren kopia.
- o **Urtean energia gastuen** fakturak (energia elektrikoa eta erregaia), diru laguntza programa honen aurreko urteari dagozkionak).
- o Eraikinen ingurutzaille termikoa hobetzeko proiektua bada, CTEn HE-1 dokumentua betetzen dela egiaztatzen duen justifikazioa.
- o Eraikinen planta motaren krokisa, isolamendu termikoaren inguruan proposatzen den jarduerak eragindako fatxadak eta aldeak adieraziz.

Eskatzailea etxejabeen elkarte bat denean, jarduerak:

- o Etxejabeen elkartearen IFKren kopia.
- o Etxejabeen elkarteko presidente hautatzeko aktaren kopia. Etxejabeen elkarteko presidentetza izango duenak, legezko ordezkari denez gero, sinatu behar ditu diru laguntza eskaerari lotutako dokumentuak.
- o Diru laguntza eskaera ekarri duen jarduera kontratatu eta gauzatzea erabaki zen etxejabeen elkartearen bileraren aktaren kopia.
- o Eskatzailea eragindako instalazioaren jabea ez bada, diruz lagunduko den jarduerarekin zerikusia duen kontratuaren kopia aurkeztu beharko da. Horrekin batera, idazki baten zirriborroa aurkeztuko da, eskatzaileak eta jabeak sinatua, non jabeak ezagutzen eta baimena ematen du diru laguntza bideratzeko.

Zerbitzuen ematearen ondorioz, Inbertsioa jabeari jasanaraztea aurreikusten bada, fakturazio baten bidez, emango den diru laguntza jabeari jasanaraziko zaio, eta kontratuan edo bere eranskin batean nola egingo den azalduz.

Eskatzailea autonomo bat denean, jarduerak:

- o Jarduera Ekonomikoen Zergan (IAE) alta emandako adierazpenaren kopia.
- o Energia eraginkortasun handiko inbertsioaren gailuzko, «konbentzional» edo «estandar» baten aldean, 651/2014 Araudiaren 38., 40. eta 46. artikuluetan xedatutakoa betez.

Aurreko kategorietan azaltzen ez den pertsona juridiko bat denean eskatzailea, jarduerak:

- o IFKren kopia.
- o Eratzeko eskritura, arau edo aktaren kopia.
- o Ahalduzko eskrituraren kopia, edo ordezkatzeko ahalbideak egiaztatzen duen dokumentua eskatzailearen aldetik.
- o Energia eraginkortasun handiko inbertsioaren gailuzko, «konbentzional» edo «estandar» baten aldean, 651/2014 Araudiaren 38., 40. eta 46. artikuluetan xedatutakoa betez.

- Eskatzailea eragindako instalazioaren jabea ez bada, diruz lagunduko den jarduerarekin zerikusia duen kontratuaren kopia aurkeztu beharko da. Horrekin batera, idazki baten zirriborroa aurkeztuko da, eskatzaileak eta jabeak sinatua, non jabeak ezagutzen eta baimena ematen du diru laguntza bideratzeko.
- Zerbitzuen ematearen ondorioz, Inbertsioa jabeari jasanaraztea aurreikusten bada, fakturazio baten bidez, emango den diru laguntza jabeari jasanaraziko zaio, eta kontratuan edo bere eranskin batean nola egingo den azalduz.

EEEk ebazpena prestatzeko eta, hala badagokio, diru laguntza emateko beharrezkotzat jotzen dituen informazioa eta agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

9. EBAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Diru laguntza emateko prozedura lehia edo konkurrentzia jarraitua izango da, eta, beraz, eskabideak aurkeztu diren hurrenkeraren edo ordenaren arabera aztertu eta bideratuko dira espedienteak, eta modu egokian formulatuak eta beteak egongo diren heinean eta hurrenkeran bideratuko dira.

Eskabidea osatugabe edo akatsekin egongo balitz, hamar (10) eguneko gehieneko epea emango zaio eskatzaileari zuzentzeko (jai eguna ez diren larunbatak ere barruan), diru laguntzaren eskatzaileak horren berri emateko jasotzen duen jakinarazpena kontatzen hasita.

Goraxeago aipatutako epean dokumentazioa aurkeztuz gero, eskabideari dagokion espediente bideratzen edo tramitatzen jarraituko da. Epe horretan akatsak zuzendu edo dokumentazioa aurkeztu ezean, eskabidea baztertu egingo da, eskatutako epean ez egitegatik. Aurrekoa gorabehera, eskatzaileak beste eskabide bat aurkezteko eskubidea izango du.

EEEko zuzendari nagusiak ebazpena emateaz gain, haren berri emango du, egokitzen joko dituen moduez baliaturik, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideak (aurrerantzean «30/1992 Legea») dioena betetze aldera. Aipatutako ebazpena sei (6) hilabeteko epean helaraziko dio eskatzaileari, diru laguntza eskaera aurkeztu den egunetik kontatzen hasita.

Ebazpen horretan diru laguntza jasotzen duen proiektuaren irismena, diru laguntzaren zenbatekoa eta intereseko beste alderdi batzuk azalduko dira. Ebazpena eskaerari ezezkoa emateko bada, ordea, zioak edo argudioak azalduko dira.

Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, interesdunek hautazko birjartze errekurtsioa jar dezakete EEEko zuzendari nagusiaren aurrean hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Hori guztia, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116. eta 117. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46.1 artikuluekin bat etorritik, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean 29/1998 Legea).

Diru laguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere onuraduna izateko diru laguntzen araudiek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak babestuz, diru laguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake.

10. DIRU LAGUNTZAK ORDAINTZEA

EAEko Administrazio Orokorrek eta bere erakunde autonomiadunek zein EEEK emandako diru laguntzak itzultzeko dauzkaten elkarrekin, laguntzen programa honen izaera berekoak baldin badira, ezin izango dute laguntzen programa honek ematen duen diru laguntzarik jaso. Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko diru laguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldirian edo bide betearazlean.

Aurkeztuko den proiektua edo azterlana bukatu ondoren, EEEK emango duen diru laguntzaren ordainketa, onuradunak horretarako adierazitako kontu korrontean egingo da. Hori egin aurretik, justifikatu beharreko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, diruz lagunduko jarduerak eta egindako gastuak egiaztatzeko.

Jarduerak justifikatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira.

- a) Egindako inbertsioaren faktura zehatza/k (jatorrizko bikoiztua edo kopia konpultsatua), 2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31 bitartean data dutenak, eta 651/2014 Araudiaren pean dauden enpresen kasuan, Oinarri hauek EHAAn argitaratu ondorengo egunetik 2014ko abenduaren 31ra.
- b) Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- c) Gizarte Segurantzian dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiri eguneratua.
- d) Onuradunaren adierazpena, laguntza programa honetara aurkeztu duen proiektuaren xede bera edo antzekoa egiteko, beste administrazio batzuei edo erakunde publikoei edo pribatuei eskatutako edota jasotako diru laguntzei buruzkoa (**II. eranskina**).
- e) Diru laguntza edo laguntza publikoak lortzeko zigortuta ez egotearen, administratibo edo penalki, edo eskuratzeko aukera galarazita zein debekuren bat indarrean eduki, eta horretarako gaitasunik gabe uzten ez dieten adierazpena (**III. eranskina**).
- f) Auditorien kasuan, azken txostenaren kopia formatu informatikoan eta paperean, sintesiari eta ondorioei dagozkien atal zehatza izango duena.
- g) Hirugarren alorreko eraikinetan jarduerak egiteko, 8/2013 Legearen arabera, hobekuntza gauzatu ondoren, Eraikina Ebaluatze Txostena, «hiri gaiberritzeaz, berregituraz eta berritzeaz diharduena», eta bertan, eraikinaren irisgarritasunaren ebaluazioa, kontserbazio egoeraren ebaluazioa eta energia eraginkortasunaren ziurtapena xedatzen dira.

Jarduerak gauzatu ondoren, begiz ikusteko ikuskapena egitea ezinezkoa diren kasuetan, adibidez, isolamendu termiko, ekonomizagailu eta abarren ezarpena, diruz lagundutako obraren gauzapearen inguruko argazkiak aurkeztu beharko dira, paperean edo formatu informatikoan.

Aipatutako dokumentazio hori guztia jaso ondoren, aztertzeari ekingo zaio, eta egokia edo behar bezala izanez gero, diru laguntza ordaintzeko izapideari hasiera emango zaio, dagokion diru sarrera eginez.

Goraxeago aipatutako dokumentazio hori aurkezteko azken eguna 2015eko urtarrilaren 31n izango da. Nolanahi ere, dokumentazio justifikagarri guztia aurkezteko epea ez da inola ere luzatuko EEEn aldetik.

2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra bitartean, energia instalazioa egin dela eta dagokion fakturazioa egiaztatzen ez badira, eta 800/2008 Araudiaren pean dauden enpresen kasuan, Oinarri hauek EHAAn argitaratu ondorengo egunetik 2014ko abenduaren 31ra, laguntzen programa honek ematen dituen diru laguntza jasotzeko eskubiderik ez da izango.

Aurkeztuko den dokumentazio justifikagarria aztertu ondoren, hasieran emandako diru laguntzaren zenbatekoa zegokiena baino txikiagoa dela edo onuradunak diru laguntzarik jasotzeko eskubiderik ez duela egiaztatuko bada, diru laguntzaren zenbatekoa alde edo osorik murrizteko, edo diru laguntza alde edo erabat baliogabetzeko espedientea irekitzeari ekingo dio EEK.

Aipatutako dokumentazio justifikagarri hori EEEn bulegoetan aurkeztuko da, edo posta zertifikatuaz bidaliko da honako helbide honetara:

EEE – Energiaren Euskal Erakundea

5020 Posta Kutxa
Bizkaia plaza eraikina
Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua
48011 Bilbo

Adierazi erreferentzia hau: **ENERGIAREN AURREZPEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ALDEKO INBERSTIOAK SUSTATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA 2014 eta dagokion espediente zenbakia.**

11. IKUSKAPENAK

Diru laguntza emateko ebazpena eman ondoren eta, hala badagokio, diru laguntza ordaindu eta gero, EEEk ikuskapen teknikoa edo ekonomikoa «in situ» egin ahal izango du, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz. Ikuskapena egingo zaien onuradunei aldeztu aurretik idazki bat bidaliko zaie haren berri emateko. Ikuskapena egiteko betebeharra du eskatzaileak, eta, beraz, onartu beharra du.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi asteren barruan, EEEk onuradunari ikuskapen teknikoa edo ekonomikoa «in situ» egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin izango balitz ikuskapena egin, EEEekin zerikusia ez duten arrazoiak tarteko, idatziz jakinaraziko zaio onuradunari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, ikuskapena egin ahal izateko. Hori egin ezean, EEEk diru laguntza aldeztu edo erabat balio gabetzeko ebazpena emateko espedientea abiaraziko du.

Ikuskapenean hartutako informazioa eskabidean aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako diru laguntza kantitatea txikiagoa izan behar dela, edo ez dagokiola diru laguntzarik jasotzea ondorioztatuko balitz, EEEk beste espediente bat egingo luke eta, hala badagokio, emandako diru laguntzaren zati bat edo kantitate osoa itzultzeko espedientea irekitzeko ekingo lioke, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

Eskatzaile/onuradunak emandako informazioan akats edo gabeziak izanez gero, eta EEEk eman beharreko diru laguntzaren zenbatekoarekin zerikusi zuzena badute, ez izapide edo tramitazio egoki edo desegokiari lotuta, gerta litezkeen arazoan erantzukizuna eskatzaile/onuradunarena baino ez da izango. Beraz, gastuan izan daitezkeen gehikuntza, diru laguntza emateko unean kontuan hartu zen diru kantitatearen aldean, ez da aintzat hartuko.

12. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi edo programa honen bitartez arautzen diren diru laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

